

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2874

*1226/2022 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Julia Zaldibar Quintana andrea Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari kargutik kentzen den.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 1030/2015 Ebazpenaren bidez (2015eko ekainaren 15eko EHAA argitaratuta), Julia Zaldibar Quintana andrea Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Julia Zaldibar Quintana andrea Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea, erretiroa hartu duelako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko ekainaren 22ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari eta Uribeko ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.